



**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**NAFARROA HIRIBIDEA 44**



**Egilea eta data: Lucas Alday; 1934**

**Deskribapena**

Kantoiko eraikina, erdisotoa, tarteko oina eta jatorrizko sei goi oin dituena, horietako azkena atzeraemana eta galeria ireki bihurtzen diren begiratokiak dituena. Hormigoia eta horma atal entokatuak konbinatzen dituen fatxada. Multzoaren begiratoki/balkoi txandakatzek konposizioari ematen dion enfasiak hirukoiztu egiten du balkoi kopurua, kantoio horretako ardatzean begiratoki bat izateko. Jatorrizko proiektu komuna Nafarroa 46, Pasaia 4 eta Pasaia 6rekin.

**Babes erregimena**

1. Erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
  - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.